



**ITSASONDOKO  
UDALA**



## **BOLUMEN HANDIKO ETXEKO TRASTE ZAHARREN BILKETA ZERBITZUARI BERRIRO EHINGO ZAIO**

Koronabirusaren hedapena saihesteko, martxoaren 24an bertan behera geratu zen bolumen handiko etxeke traste zaharren bilketa zerbitzua.

**Maiatzaren 11tik aurrera, deseskalatze edo konfinamendua arintzeko 1. Fasea** hastearekin batera, bolumen handiko etxeke traste zaharren bilketa **zerbitzuari berriro ekingo zaio** soilik herri bakoitzean dagoen bilketa-egutegiari jarraituz.

Egun horretatik aurrera, Urretxu, Beasain eta Ordiziko garbiguneetan ere honelako hondakinak jasotzen hasiko dira ondorengo ordutegian: astelehenetik ostiralera 9:00-12:30 eta 15:30-18:30 bitartean eta larunbateta 9:00-13:00ak bitartean.

Garrantzitsua da hondakin hauek ateratzeko **egutegia errespetatzea** eta ondorengo arauak kontutan izatea:

1. Altzariak, koltxoiak, etxetresna elektrikoak (garbigailuak, hozkailuak, ordenagailuak, telebistak...) eta tamaina handiko bestelako traste erabilezinak jasotzen dira soilik.
2. Gaineratiko hondakinak garbigunera eraman behar dira:
  - Eskonbroak eta obratako bestelako hondarrak (tarima, bainuontzi, komunontzi, baldosa, azuleju...)
  - Kristalak, ispiluak, eta objektu ebakitzailak
  - Hondakin arriskutsuak (bateriak, fluoreszenteak, pinturak...).
  - Gurpilak
  - Egurrezko paletak
  - Arropa, jostailuak eta etxebizitza nahiz garajeetako garbiketako hondarrak

### **Arropa:**

Bestelako abisurik jaso arte, **arropa zaharren bilketa zerbitzurik** ez dago